

Inkesta baten inguruan

Errealitatea garbi ezagutzearen garrantziaren haundia denok dakigu, aldatu nahi dugun errealitatearena batez ere.

Gure irakurleak, bestalde, ezagutzen du aldizkariaren trajektorian azterketak beti izan duen gora: errealitatea, hizkuntzarena eta kulturarena bereberki, aztertzen, ezagutzen eta ikasiaren berri ematen saiatzen gara, datuak inori ezkutatzen ibili gabe. Informazioaren bidez eta eritzien kontrasteari ateak zabalduz lortuko dugu denon artean gure egoeraren ezagupena eta transparentzia. Sekretismoek eta kapilismoek ez gaituzte inora eramango. Jakin beharra daukagu zenbaterainokoa den euskaldunberrien fenomeno, zertan den alfabetakuntza, zer deritzoten etorkinek, nola jokatzen ari garen eskolarekin, etab., etab. Jakin, ez geure buruok enganatu eta ez ibili beste inor enganatuko dugulakoan.

* * *

Ohore bat da, gaur, JAKINentzat, bere irakurleei eta Euskal Herriari zerbitzu eder hau eskaini ahal izatea: Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Azterketarako Lantaldeak prestatu duen azterketa euskararen egoera sozialaz.

Ekinaldi sendo eta global batetara pasa beharko genukeen honetan, joan-etorririk haundienekoa da inkesta honen bidez lortu nahi den xede bikoitza: lehenik hizkuntzaren egoera soziala zehazki-mehazki ezagutu. Programarik egingo bada, non gauden ikusiz abiatu beharko dugu. Bigarrena, egindako inkesta ezagutzera eman eta zabaldu, ikus eta ikas dadin; ez lanaren bikainagatik bakarrik, JAKIN-ek irakurleari zor dionagatik ere baino, euskarak ordu

larri honetan denoi eskatzen digunagatik ez gutxiago. Denon ordua da, ez erakunderen batzuen edo besteena soilik, ez instituzioena bakarrik edo militantzia hutsarena.

JAKINek euskararen eta euskal kulturaren zerbitzuan dauka bere burua. Informazio zerbitzu bezala hain zuzen: asmo horixe izan bait dute gure zenbaki guztiek, Euskal Herriaren ezagupena sakontzeko espreski antolatuek nagusiki, nahiz eskualdeak aurkeztuz (Ipar Euskal Herria, Nafarroa, Araba), nahiz gizarte-arazoak (Ekologia, Medikuntza, Langabezia, Industri birmoldaketa), kultur arazoak arakatzuz halere sarrienik (Euskal Unibertsitatea, Kanta Berria, Bertsolaritza, Elebitasuna eta Ikastola, Euskararen zapalkuntza, Komunikabideak Euskal Herrian, etab.). Hizkuntzaren arazoak enplegatu izan gaitu gehienetan, hainbat erreferentzia aurki dezake irakurleak, zenbakiz zenbaki, urteak joan urteak etorri. Horregatik zenbaki honetako azterketa soziolinguistikoa bere-bere etxean dago JAKINen.

Gurea bezalako informazio zerbitzu batek ez luke zentzu haundirik, halere, euskarak beste mila zerbitzu modu gehiago ez balu eta denen artean kolaborantza izpiritua nagusi ez balitz: irakaskuntzakoak, etab., administraziozkoak halaber eta politikoak.

Instantzia politiko bat izan da oraingoan zenbaki honetako azterketaren egilea, edo eragilea. Baina Eusko Jaurlaritzak inkesta honekin Euskal Herriari egin dion zerbitzuak, uste dugu interes mugatuki politikoen edo alderdikorren barrutiak aise gainditu dituela, euskararen orainaz eta geroaz kezkatzen garen guztioi eta bakoitzari eskuetan tresna paregabe bat emanez: guztiz argigarria izango bait da Jaurlaritzak berak hizkuntz politika nola gidatu jakiteko, baina ez gutxiago beste guztiok ere berreuskalduntzean, alfabetakuntzan, normalizazioan, kulturgintza osoan, non gabiltzan erreparatzeko, gure indarrak non zentratu erabakitzeko. Ongi jabetu beharra daukagu, non dauden euskararen ahalmen sozialak, non arriskuak eta axolagabekeria, zein dugun laguna eta zein etsaia, euskararen etsaia, ez agian geure etsaitxo pertsonala. Gureak zinez asmo euskaltzaleak diren neurrian, denok bata besteagandik gaudela ezin inoiz ahantz genezake: «Elkarrekiko dependentzia hori, gure 25. urteko zenbakian aitortzen genuenez, denen-

tzako da aberasgarri. Tren beraren bagoi desberdinetan goaz. Denok iritsiko gara edo denok galduko gara».

Azterlan hau agertzerakoan, aldizkariak eskerrak eman nahi lizkieke, bere izenean eta irakurlegoarenean, Eusko Jaurlaritzari eta, guztiz bereziki, J.I. Rz. Olabuenagari eta M. Marañoni, egin duten ahalegin bortitzagatik, esku zabalaz eskaintzen diguten opariarengatik.

* * *

«Eta zer, zer berririk?», galdetuko du jakinminak, inkesta bat omen dela entzun orduko. Anekdotarioan galdu eta inkesta dena desbirtuatzeko arriskua beti dago. «Zenbat euskaldunberrik irakurtzen du Punto y Hora?», «nola partitzen dira joera politikoak?»... Horiek izan litezke galdera txit garrantzitsuak, segun zer nahi den. Irakurlea libre da. Baina guk geuk inkesta bere osoan har dadila, nahi genuke, anekdotario hutsean, esan bezala, galdu gabe. Horregatik galdeketa bera ere oso-osorik argitaratzen dugu, erresulta soilak eman orde. Balorazioa egin nahi dezanak, datu denak eskuetan ditu orain.

Gure aldetik irakaspen hauek azpimarratuko genituzke, berriak ez izan arren, beti gogoangarriak eta funtsezkoak, ezezkorretik baikorrera joanez:

- a.— Euskara, ez lurraldearen zabalez, ez hiztunen kopuruz, da nagusi Euskadin (Lurralde Autonomoan). Nagusi, ondo nagusi, gaztelania da: gutxiengoak gara eta zatikatua gainera.
- b.— Euskal hiztunen gizartean bertan euskara, desegituratua, hiltzeko bidean doa. Euskararen hiltzoria erreala da, ez da lantu erromantikoa.
- c.— Halere euskarak Euskadiko euskal nahiz erdal hiztunen artean itzala eta begirunea irabazi du, hiri giroan ere: prestigiatu egin da.
- d.—Euskararen aldeko gogoak eta lehia biziki azkarra da Euskadin, euskaldun nahiz erdaldunen artean.

Beste era batetara bilduz:

- a".— «Euskara, gehien-gehienentzat, gertaera sozial bat da, eta ez bakarrik menpera eta atzeraezina, aitzitik, nabarmenki hedatzen ari dena baizik».

b".— *Euskadiko jendearen elkartasunerako identitate sinbolo goren bera dugu.*

c".— *Baina jadanik ez da nahi euskara sinbolo gisa soil ere, mezuen komunikatzaile eta bizitza soziale-rako hizkuntza funtzional eta erabilgarri gisa baino.*

Alde positibo eta negatibo hauen artean, kontraesanez beteriko komunitate zartatu batetan bizi da euskara, margi-nazioan oraindik, bakerako baino gertuago borrokarako.

* * *

Zer da, izan ere, euskara hori, bakean uzten ez gaituena, sakrifizioak eskatzen dizkiguna geurekiko eta, askotan, atsedean gabeko borroka besteekiko? Euskararik ez dakitenak eta dakigunok hain barnetik biltzen gaituena? Nazio kontzientzia da. Azterketa soziolinguistikoko honek berriro erakusten digu: inkestatuek hizkuntzaren berreskurapena eginkizun politikotzat daukatela; hobeki, arazo eta eginkizun nazionalizat jotzen dutela hizkuntzaren borroka. Euskaltzalea, euskaldunberria, euskaldun arrunta eta Euskadiko erdalduna bera puntu horretan batera datoz. Eta, bigarren, ematen den bultzada, euskarak funtsean aurrera-uzten duena, militantziari esker egiten dela.

Horra, bada, datu lehendik ezaguna, berriro nabarmen-dua: prozesu sozio-historikoan hizkuntz kontzientzia kolektiboak duen egiteko trukea ezina, inkesta honetako emaitza kontsolagarriena zalantza gabe. Kontzientzia honek esijitu egiten du: esijitu egiten dio Eusko Jaurlaritzari, HABEri, AEKri, UZEIri, Euskaltzaindiari, Unibertsitateari; esijitu, ematen diotena baino gehiago, eman liezaioketen baino gehiago apika. Eske bizia dago zorionez. Euskadik euskalduna izan nahi du.

Gogoia dago eta esperantza haundia dago. Herri zahar eta hautsiak berregin eta bizi egin nahi du. Baina, honez gero, erreparo bat agertzen da. Erdibitzen ari gara, alde batetan instituzioak, bestean militantzia. Eta hori, luzarora, gure desastrea izango litzateke. Militantzia, kontzientzia kolektibo errebindikatzailea, edozein antolaketa instituzional nahiz extrainstituzional baino oinarrianago da behar-beharrezkoa, orain eta gero, erakunde haien sostengu eta

suztatzaile, haiek baino barrenago, opzio desberdinak baino lehenago, guztien oinarri, kontzientzietan sustraiturik. Kontzientzia hori, arrazoi desberdinengatik orain bixi-bixi omen dagoena (moteltzen hasia ez ote dago?), zaindu egin behar da eta landu egin behar da, itzaliko ez bada. Ez «beste» buruberoentzat utzi eta ez «geure» monopolio bezala akaparatu. Ez instituzioen barruan eta ez kanpoan euskarak burua altxa lezake militantzia gabe. Hizkuntz kontzientzia nazional hori izango da gure armarik baliagarriena, dituen ajeak sendatu eta heldutasun jasoago bate-tara iritsi ala. Gaur, ordea, deitoratu beharra dago, euskararen aldeko errebindikaziotan beretan (manifestaldiak edo) ezin gara elkartu. Ez gara luzatuko. «Entzuteko beharrik duenak, entzun beza»

* * *

Etsaiak. Euskarak ez ditu adiskideak bakarrik. Etsaiak ere baditu, barruan eta kanpoan.

Kanpoan, lehenengo, euskararen zinez arerioak daukagu, ageri-ageriak nahiz gutxi-asko mozorrotuak, Alderdirik edo erakunderik izan beharrik gabe. Euskararen edozein errebindikaziotan histerismoa besterik ikusten ez duen jende dotore, guztiz arrazoizkoa, oso jende jaun eta mundu haundikoa. Abertzaleak ere ba omen dira, batzuetan. Alderdi eta instituzioren batzuk, orobat, abertzaletasunaren auzokeriagatik, edo euskararen inperialismoagatik, edo diskriminazioa omen delakoagatik, edozergatik, euskararen desarroiloari beti zankadila jartzen eta ate denak hersten besterik sekula jakin ez dutenak, nahiz eta orain ezin garbi-garbi esan, egiaz nahi luketena, euskararen heriotza dela.

Baina, kontra egon gabe, alde ez dagoen jendeteria ezaxola guzti hori dago, gainera, berreuskalduntzearen zentzu sakona, kolektibitatearen integratzailea, ulertu gabe, beste modu batetan hura ere euskararen etsai gertatzen dena. Oro har, euskararen kontzientzia bizia dago, esan bezala, inkestak enganatzen ez badu. Baina kontzientzia falta haundia dago, herri bat, komunitate bat egin nahi izateko. Hemen, esparru honetan, lan egin beharra dago: ez lan esporadikoa, noizean behingo ekintza galduak, funtsean haiek ikusliar huts bihurtzen dituztenak (manifestaldiak, hauteskundeetako propaganda), baina lan sistematikoa, jende hori aktiboki bilduko duena, informatu (euskaraz

baino erdaraz gehiago nahitaez) eta suztatzeko. «Euskaldunok, berresango dugu, erdaldunei hizkuntz proposamen bat egin beharrean aurkitzen gara (...), baina proposamenak onargarria izan behar du, bere helburu, metodologia eta ekintzetan. Bestela gerrate batetara goaz» (22, 8). Garaiz kontuak ateratzea dago, konponbide gabeko trantze batetara heldu nahi ez badugu.

* * *

Horien aldean barrukotzat eman genitzakeen arriskuak eta desarroiloaren eragozpenak ez dira gutxiago begiratzekoak.

Oso gogoan hartzekoak iruditzen zaizkigu, ezinaren aurrean edo, gaurkoz bederen, ezin gaintutzkotzat agertzen zaizkigun trabak. Ez dugu uste, legeak ematen zizkigun posibilitate kaskarrak ere behar bezala probetxatu direnik, betiko gure kalamitateak medio. «Egin dira garrantzizko gauzak» batek euskaltzalea ezin sobera poztu lezake, ondo egin zitekeen eta txatxukeria artean egin gabe geratu zaigun guttia ikusten duela. Arrazoiak eta erruak aparte, aitortu beharra dago, ez dela asmatu, behar zen organizazioa eta bultzada sortzen, lanean jarri behar ziren indar guztiak lanean jartzen; alderantziz, proiektu eta indar asko erre zaigula denon kaltea beste irabazirik gabe.

Lanean ari diren euskaltzaleen animoak nahiko atseka-betuak ikusten ditugu azken aldian. Garrazturik eta minbera. Dabilenak daki, euskararen munduan ezer egiteko, oraindik ere, nolako baldintza negargarrietan ihardun behar izaten den. Baina ez dago batzuei betiere guztian idealismoa eta sakrifizioa eskatzerik, bitartean beste batzuei egiteko berdintsuetan medioen oparotasun guztiak sobera zaizkienean inondik ere. Luxu eta bonbazia tonto batzuk, euskaraz ohi izan den estilotik arras kanpora, burla hutsak dira militantziarentzat, edozein odoltxartzeko edo desanimatzeko apropos eginak bailiran. Ez da bide ona, euskararen aldeko langileen bi klase sortzea, bata ponperian eta miserian bestea.

Aztertu beharra daukagu, ordea, euskaltzale, zaldun barik, oinezkook ere, gure proiektuek, proiektuon ederraren eta gure itxaropenen eta ahaleginen maila lortzen ez badute, zenbateraino ez den izaten geure erru soil-soilez. Exi-

toa ez da inprobisatzen. Eta ez dago mundu guztia probokatzeko ibiltzerik, lainezerian, gero haietxeko laguntza behar dugunekin. Pentsa dezagun, denek ez daukatela zergatik egon guri begira eta laguntzeko irrikatzen, idealistak omen garelako eta gure lana oso herriaren onuragarri omen delako. Errealismoa ez dela derrigor bizio bat, derrigor birtutea ez den legez. Lagunak eta laguntzak falta bazaizkigu, beraz, lagunak egiten geuk jakin ez dugulakoxe, izan daitekeela. Haizeen ereileak badaki uzta: ez dauka zergatik frustratuta sentitu trumoiarekin.

Euskaldunberri eta berritu-nahi askoren frustrazioak ere, besteak beste, inkesta hotz batek jaso ahal baino beste-lakoak dira. Hor, esperantza daukagun toki berean daukagu arriskua. Pentsatu beharra dago.

Batzuetan, aitor dezagun, euskaltzalea beldur da, inkesta honetako erresultak baikorregiak ez ote diren, euforia baten txinpartak. Kezkatxoa, behintzat, geratzen zaigu, euskararen aldeko hainbeste borondate, esaterako, puska bat edo piska bat, apar hutsa ez ote den izango. Edo, bestela, hizkuntz kontzientzia kolektiboaren baitan ez ote dagoen inkoherentzia dexente. Badirudi, proposamen orokorrek onarpen oso zabala dutela; proposamen horietxek modu programatu batetan egintzetara eramanez nahi direneko, haatik, uzkurto egiten dela inkestatua. Ikara horren azpi-azpian, inkontzienteki, «gaztelania ezartzea bidezkoa da; euskarak, ordea, borondatezkoa izan behar du» eskema dagoela, ematen bait du. Gure egoera diglosikoaren agerpen bat gehiago, noski. Baina mentalitate horixe gaindituz hasi beharra bait dago. Ez daukagu euskarari hizkuntza «toleratu» baten planteamoldeak egiterik.

Euskarak prestigioa irabazi du. Beldur gara, baina, hemen ere prestigioa, berea baino gehiago, beste borroka modu batzuek mailegatua ez ote duen.

Estimu hori gutxi ez dadin, euskarak bere baitatik irabazi beharko du eta zabaldu bere itzala. Horretarako, lehenik, euskarazko kultura egin eta jaso behar. Euskarak ofizialtasun erreala izan behar, ez paperezkoa. Orokorkiago, bigarren, herri honen historia, tradizioak, mitologia, etab., ezagutzera eman, nahiz gaztelaniaz izan, euskararen sinifikazioa, erdigune eta muin bezala, historikoki nahiz sozialki, erakutsiz. Are, geroari begira, daukagun proiektu so-

zio-politikoan, berreuskalduntzea faktore integratzaile eta baketzaile bezala ulertu eta ulertarazi, ez restaurazio arkeologiko sentimental soil gisa, gutxiago rebantxismo bezala.

Inkesta baikor eta itxaropentsu honen aurrean euskaltzaleoi zuhur eta begiratu izatea dagokigu, gure izpiritu autokritikoa inoiz ez galtzea. Ez dira inkestak, salbatuko gaituztenak. Ezta suhar eroa ere. Zuhur eta suhar dagokigu jokatzeari.

* * *

Problema batzuk aipatu ditugu. Azkenik, larriena, hitz bi esan beharra dago inkestari berari buruz.

Inkesta hau, egileen errurik batere gabe, «hiru probintzi»etakoa soilik da. Nafarroa eta Ipar Euskadi kanpoan geratu dira. Hasieran errealitatea ezagutzearen garrantziaz aritu gara. Hona hemen inkestaren errealitatea isladatzeko modu tragiko bat.

* * *

Zuen esku dago, euskaltzale adiskideok, euskararen egoera eta balorapen sozialaz egindako inkesta hau. Zuei dagokizue zorrozki irakurtzea, kritikoki zuen eguneroko esperentziarekin kontrastatzea, ezagupenetik ekintzara bidea irekitzea. Zuen aportazio kritikoak dossier hau osatzen lagun lezake; inkestaren egiazko jarraipena eta osapena, hori denok dakigu, zuen lanak izan beharko du. Milesker, beraz, berriro, euskaltzale oldartsuoi, Eusko Jaurlaritzari eta inkestagileei bezalaxe.

1983 – otsailean